

Itzulpenik gabe, jai dago

Egia galanta esan du Andoni Aldekoa EITBko zuzendari nagusiak EITBk hurrengo urtean abian jarriko duen plataforma digitala aurkezterakoan: «Egungo ikus-entzunezko kontsumoan plataformak funtsezkoak eta erreferentzia geldiezina direla uste dugu. Gaur egun, euskarak ia ez du lekurik eremu horretan; eta, euskarak gainerako hizkun-

den kalitate bereko edukia ematen ez baditu, eta eduki horiek gainerakoak bezain erraz eskuratzen ez badira, gure hizkuntzaren etorkizunerako galera konponezina izango da». Baina kalitatearekin batera kantitatea aipatzea falta izan zaio.

Benetan lagunduko dio «euskal Netflix» bat izango omen den plataforma horrek euskarari? Plataformak ez ditu euskarazko

edukiak soilik eskainiko, «Euskal Herrian sortzen diren ikus-entzunezko lan guztiak» baizik, «filmak, dokumentalak eta bestelakoak». Gaztelaniari ere lagunduko dio, beraz, euskarari baino gehiago seguru asko. Baina hori ez da esaten. Zergatik?

Plataformako euskarazko ikus-entzunezko guztiak, edo gehienak behintzat, euskaraz sortutakoak baldin badira –eta

hala izango direla dirudi, ez baita kontraktorik adierazi eta aspalditxotik ETBren politikan euskarara itzultitako ikus-entzunezkoak oso urriak baitira –, plataformako euskarazko eskaintzak zeharo urria izaten jarraituko du, gaur egun euskaraz ekoizitakoa oso urruti baitago kontsumo erregrular samar baterako aski izatetik.

Plataformak plataforma eta euskararen aldeko aldarriak aldarri, ez dut ikusten nola handitu daitekeen ikus-entzunezkoen euskarazko kontsumoa itzulpena –dela azpigitulu bidez, dela bikoizketa bidez– jo gabe, euskaraz sortutakoarekin soilik ezin baitzaio taxuz erantzun eskariari,

Euskal Herria Hollywood hiperproduktiboa bilakatzeko asmorik ez badago behintzat. Txillardegiri parafraseatuz: itzulpenarekin ere oso zaila du euskarak aurrera egitea; itzulpenik gabe, ezinezkoa. Gaur eta hemen, euskararentzat, itzulpenik gabe, jai dago.

Besterik da euskarak, marjinala eta bigarren mailakoa bada ere, bere presentzia txoa izateari nahikoa irizten badiogu, tartekako arrakasta handi batzuen pozarekin etsitzen badugu, euskarara no-nahiko bihurtzeko Lizardieren ametsean erdibidean geratzearrekin konforme bagaude. Horrela bada, plataformak... kalterik ez du egingo behintzat.



EKOGRAFIAK
Juan Luis Zabala

EH Bilduk ikus-entzunezko hedabideen kontseilua eskatu du

Koalizioak lege proposamena aurkeztu du • Sektoreko zenbait aditurekin egin du lanketa

Urtzi Urkizu

Ikus-entzunezko hedabideen euskal kontseilua sortzeko lege proposamena aurkeztu du EH Bilduk. Jasone Agirre koalizioako legebiltzarkideak atzo Gasteizen adierazi zuenez, «anomalía bat» da Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian erakunde hori ez existitzea, «Europako Batzordeak berak sustatzen baitu horrelako organo independenteak sortzea ikus-entzunezko komunikabideak eraldatzeko estrategian».

Katalunian eta Andaluzian (Espainia) martxan daude kontseiluak, eta Valentzian (Herrialde Katalanak) lege bat onartu dute halako kontseilu bat sortzeko. Frantziak ere badu ikus-entzunezkoen kontseilua, baita Europako beste zenbait herrialdek ere. EH Bilduk proposatu duen legea ikus-entzunezkoen arloko hainbat aditurekin eginiko kontraste eta lanketa baten emaitza da.

Proposamen hau egin du EH Bilduk: «Kontseilu horrek erakunde independente bat izan behar luke, eta haren helburua euskal esparruko ikus-entzunezko edukia arautzea izango da, bai eta zigor arauak ezartzea ere, komunikabide publiko zein pribatu eta gainontzeko ikus-entzunezkoetan, eta, era berean, erakunde aholkularia eta proposatzailea ere izango da».

EH Bilduko legebiltzarkideak nabarmendu zuen kontseilua in-



Jasone Agirre EH Bilduko legebiltzarkidea, atzo, lege proposamena aurkezten. RAUL BOGAJO / FOKU

dependentea izango litzatekeela, eta, azaldu zuenez, arauak ezartzeko boterea izango luke euskal ikus-entzunezko komunikazioaren esparru osoan: bai telebistan, bai irratiari, bai Interneten.

Kontseiluaren helburuei dagokionez, hauek aipatu zituen Agirrek: «Ikus-entzunezkoen komunikazioaren askatasuna, informazioaren aniztasuna, neutraltasuna eta balibide publikoaren independentzia eta inpartzialtasuna bermatzea, euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko erakundeekin akordioak egiten laguntzea, adin tarte guztietan Internetarako sarbidea

bermatzea eta emakumeen eta gizonen berdintasunezko parte hartzea sustatzea».

Halaber, koalizio abertzaleak azaldu zuen kontseiluaren zereginetako bat ikus-entzuleen defentsa bulegoa sortzea eta kudeatzea izango litzatekeela. Bulego horrek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako irrati eta telebistetan ematen diren programazio eta publizitatearen inguruko herritarren kezak jaso, bidali eta erantzun litzuke.

Agirrek kontseilua eratu behar aldarririkatu zuen: «Gaur egun euskal komunikazio esparruan ikus-entzunezkoek ez dituzte inondik inora asetzen

geure beharrak herri gisa, eta kanpoko parametroetara, kanpoko hizkuntza, kultura, identitateetara ari gara egokitzen». Pandemiarekin, ikus-entzunezkoen kontsumoa gehiago handitu da, eta Agirrek ohartarazi du gaur egun jokaleku horretan egin dela gizarte balioen transmisioa, batez ere gazteen artean. «Horregatik, berebiziko garrantzia dauka ikus-entzunezkoen espazioa ikuskatu eta arautuko duen erakunde independente bat izateak».

Jaurlaritzaren irizpenaren ostean, lege proposamena ekainaren amaieran edo irailean bozkaturiko dute Eusko Legebiltzarrean.

Ez-binarioen lekukotzak, gaur 'Ur handitan' saioan

BILBO • Ez-binario izateko aukeraren alde egin duten sei herritarren lekukotzak jasoko dituzte gaur gauean ETB1eko *Ur handitan* saioan: Esti Blanco, Eneko Garcia, Iris Dominguez, Josebe Iturrioz, Asier Rikarte eta Harri Arrijuria. Ez bitartasuna nola bizi eta sentitzen duten azalduko dute, Xabier Madariagaren galderi erantzunda. Haien bizipenak kontatuko dituzte saioan.

'Telenorte'-k 50. urteurrena ospatuko du

BILBO • TV Eren Euskal Autonomia Erkidegoko zentroak 50 urte beteko ditu aste honetan, eta osatiralean saio berezi bat egingo dute Bilboko Azkuna zentroan. *Telenorte*-ren saioa berezia izango da: zuzenean egingo dute, eta Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakaria gonbidatuko dute. Musika Izaro Andresek eta Mikel Ereñtunek jarriko dute.

Tony Kayeren iragarki bat Kontxan

DONOSTIA • Tony Kaye zinemagileak *American History X* filma –whiski marka ezagun baten iragarkia grabatuko du ekaineko lehen hamabostaldian Donostiako Kontxako hondartzan. 250 figurante erabiliko dituzte grabaketan. Iragarkian irudikatuko dute pandemia ostean jendea elkartzen ari dela: hiriko hainbat tokiatatik hondartzara joan, eta han elkartzeko dira denak.